



PRENTSA OHARRA: 2024.07.08

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan ikastaroak ikasleak nazioarteko testuinguruetan edo testuinguru eleaniztunetan motibatze gakoak eskainiko ditu

- Ikastaroa uztailaren 10ean egingo da Donostiako Miramar Jauregian, EHUren Udako Ikastaroen baitan**
- Bost hitzaldi izango ditu, euskal ikasketetan, pedagogian eta IKTetan adituak direnek emanak**

Etxepare Euskal Institutuak EHU/ UPVren Udako Ikastaroekin batera urtero antolatzen du 'Bikaintasuna Euskal Ikasketetan' ikastaroa, nazioarteko testuinguruetan euskararen irakaskuntzan aritzen diren pertsonen formakuntza sustatzeko helburuz. Ikastaroak 14 edizio beteko ditu aurten, eta uztailaren 10ean egingo da, Donostiako Miramar Jauregian. 'Nolako irakaslea, halako ikaslea?' izenburupean, nazioarteko testuinguruetan edo testuinguru eleaniztunetan euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzan ikasleak motibatze eta modu esanguratsuan ebaluatzeko estrategia, tresna eta baliabideak izango ditu hizpide.

Goiz bateko iraupena duen diziplina anitzeko prestakuntza izango da. Euskal ikasketetan, IKTetan eta pedagogian adituak diren hainbat unibertsitateetako irakasleek bost hitzaldi emango dituzte. Saioetan ikasleen motibazioan eragiteko funtsezko proposamenak, tresnak eta metodologiak aurkeztuko dira, IKTen erabilera eraginkorra barne. Halaber, gogoeta egingo da goi-mailako hezkuntzaren baitan hizkuntzak eta humanitateak irakasteko tresna eta metodologia berriei buruz.

Gaur egungo irakurleei – Euskal Herritik kanpo unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasten duten irakasleak – edo etorkizunean Etxepare Euskal Institutuak



plazaratzen dituen deialdien bidez lan horretan aritzeko asmoa duten etorkizuneko irakurleei bereziki zuzendutako ikastaroa da honakoa.

Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza sustatzen du nazioarteko hainbat unibertsitateetan, euskal ikasketei zabalkundea, sakontasuna eta prestigioa emateko helburuz. Gaur egun, Euskal Herritik kanpoko 35 unibertsitatek osatzen dute Institutuak sustatzen duen sare hori, eta 28 dira sare horretan diharduten irakurleak. Ehundura hau indartzeko, ezinbestekoa da irakurleek eta irakurlegaiak trebakuntza egokia jasotzea.

Ikastaro honek, prestakuntza jasotzen eta ezagutzak eguneratzen jarraitzeko aukera eskaintzean gain, Etxepare Euskal Institutuak urtero argitaratzen dituen nazioarteko unibertsitateetan euskal ikasketetako irakasleak hautatzeko deialdietan puntuak lortzeko balioko du.

Ikastaroa aurrez aurre eta online egin ahal izango da. Matrikula egiteko epea zabalik dago uik.eus webgunean (25 €-tik aurrera).

Programa

Uztailak 10

9:15 – 9:25
Aurkezpena

Monika Madinabeitia Medrano, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria

Junkal Gutierrez Mangado, EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

09:30 - 10:15
‘Motibazioa pizteko poxpoloak’

Naiara Arriola Garicano, EHUko irakaslea



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

10:30 - 11:15

'Euskara atzerriko hizkuntza: irakasteko proposamen erakargarriak'

Mikel Babiano López de Sabando, EHUko irakaslea

11:30 - 12:15

'Literatura jardueren diseinu esanguratsua'

Idurre Alonso Amezua, Mondragon Unibertsitateko irakaslea

12:15 - 12:30

Atsedena

12:30 - 13:15

'IKTen eragina hizkuntza ikasleen motibazioan'

Mikel Iruskieta, HiTZ zentroko IXA ikerketa taldeko kidea eta EHUko irakaslea

Unai Atutxa Barrenetxea, HiTZ zentroko IXA ikerketa taldeko kidea eta EHUko irakaslea

13:30 - 14:15

'Ebaluazioa aspergarria? Proposamen batzuk'

Neus Sanmartí Puig, Universitat Autònoma de Barcelona-ko irakasle emeritua

14:15 - 14:30

Itxiera

Monika Madinabeitia Medrano, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria

Info+

Mikel Lasa

Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1

Donostia / San Sebastián

T: 943 023 400 / M: 688 670 217

komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus